



Getxoko migrazioen
harrera eta arretarako
Bulegoa
Oficina de acogida
y atención a las migraciones
de Getxo



BERTAN BIZITZEAGATIKO NAZIONALITATEA:

BALDINTZAK ETA URRATSAK

Nazionalitatea lortzeko moduetako bat bertan bizitzearen bidez eskuratzea da. Nazionalitatea lortzeko modu honek pertsona hori legalki hamar urtez Espainian bizitzea eskatzen du, modu jarraituan eta eskaera egin aurretik. Badira nazionalitatea eskuratzeko exijitutako urteak murrizten diren kasuak. Kasu horiek honako hauek dira (*Kode Zibilaren 22. artikulua*):

- **Bost urte:** errefuxiatu izaera aitortua izan zaien horientzat.
- **Bi urte:** herrialde iberoamerikarretakoentzat, Andorrakoentzat, Filipinetakoentzat, Ekuatore Gineakoentzat, Portugalekoentzat edo sefardi jatorria dutenentzat. Bi urte horiek legalki eta modu etengabea bete beharrekoak dira, hau da: nazionalitatea eskuratu nahi duen pertsona ezingo izango da 120 egun edo gehiago Espainiatik kanpo egon eskaera egin aurreko bi urteetan.
- **Urtebete:**
 - Espainiar lurraldean jaiotako horientzat.
 - Espainiako nazionalitatea aukeraren bidez eskuratzeko eskubidea behar bezala baliatu ez zuena.
 - Legez Espainiako herritar edo erakunde baten tutoretza, erabateko ordezkarietako kuradoretza, zaintza edo harrera pean egon denarentzat, ondoz ondoko bi urtez, baita eskaera egiten den unean egoera horretan jarraitzen badu ere.
 - Eskaera egiten den unean urtebete espainiar batekin ezkondua daramanarentzat, eta legez edo egitez bananduta ez badaude.
 - Espainiar baten alargunarentzat, ezkontidearen heriotzaren unean legez edo egitez bananduta ez bazeuden.
 - Jatorriz espainiarrak ziren aita-amak edo aitona-amonak dituen eta Espainiatik kanpo jaio denarentzat.

Nork eska/aurkez dezake (*Kode Zibilaren 21. artikulua*):

- Interesdunak, bere kabuz, baldin eta 18 urtetik gorakoa bada edo emantzipatuta badago.
- 14 urtez gorakoak, bere legezko ordezkariak lagunduta.
- 14 urtez gorakoaren legezko ordezkariak. Bizilekuaren araberrako nazionalitate-eskaerari buruz desadostasunik badago legezko ordezkarien artean, horretarako aurreikusitako borondatezko jurisdikzioaren espedientea izapidetuko da.
- Desgaitasuna duen interesduna, hala badagokio, behar dituen laguntza eta prozedura-doikuntzekin.



Plaza Chávarri-Zuazo s/n
48930 Getxo



747 424 287



oficinaacogida@getxo.eus



944 660 152



Getxoko migrazioen
harrera eta arretarako
Bulegoa
Oficina de acogida
y atención a las migraciones
de Getxo



Adin nagusikoen eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak:

- Jatorrizko herrialdeko indarrean dagoen pasaportea.
- Interesdunaren jaiotza-ziurtagiria, behar bezala itzulita eta legeztatuta.
- Jatorrizko herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria, itzulita eta legeztatuta, dauden nazioarteko hitzarmenekin bat etorri edo jatorrizko herrialdeko agintari eskudunei kontsulta egiteko oinarriaren gainean igorritako jokabidearen inguruko kontsularen ziurtagiria
- Ezkontza ziurtagiria eskatzailea ezkontuta egotekotan.
- Legeztatutako seme-alaba adingabeen jaiotza-ziurtagiria, eskaeran gehitzeko eta haien nazionalitatea kudeatzeko, behin norberarena lortu ondoren.
- Tasaren ordainagiria. Ordainagiria eskaera egiten den unean deskargatu daiteke, edo kreditu-txartelarekin ordaindu, kontuan zordunduta: kasu horietan kontua eta txartela nazionalitate-eskatzailearen izenean egon behar dira.
- Cervantes Institutuak igorritako diplomak: konstituzioren inguruko eta gizarte-eta kultura-ezagutzei buruzko probarenak (CCSE) eta gaztelania jakiteko probarenak (DELE). Horren ordez, eskaera-ereduan jasotako Justizia Ministerioari kontsulta egiteko baimena eman dakioko.

Gaztelera hizkuntza ofizial duten herrialde bat jatorri duten pertsonen kasuan, ez dute DELE azterketa egin beharko bertan bizitzeagatik nazionalitatea eskuratzearen inguruko Erregelamenduaren arabera. Pertsona horiek indarrean dagoen pasaportea edo nazionalitate egiaztagiria aurkeztu beharko dute.

Nazionalitatea eskatzen duen pertsonak DBH edo batxilergoa Espainiako estatuan ikasi baditu, CCSE azterketa egitetik salbuetsita egongo da. Horretarako Hezkuntza Ministerioak emandako dagokion titulu ofiziala aurkeztu beharko du.

Eskaria egiteko urratsak

1. CCSE eta DELE azterketak, ez bazara gaztelera ama-hizkuntza den herrialde batekoa. DBH edo batxilergoa Espainian ikasi baduzu, Hezkuntza Ministerioak igorritako titulu ofiziala.
2. Pertsona fisikoaren egiaztagiri elektronikoa eskatu.
3. Hagako apostillarekin legeztatutako jatorrizko herrialdeko aurrekari penalen eta jaiotza-ziurtagiria eskatzea edo jatorrizko herrialdeko Espainiako enbaxadaren bidez. Eskatu behar badituzu, ahalik eta garbien eskaneatuta eta dokumentu bakoitza aparteko artxibo batean dagokion apostillatuaren zigiluarekin bidaltzeko eska dezakezu, eskaera egiteko eskaneatuta beharko baitira eta nazionalitatea eskuratu arte dokumentu originalak beharko dituzulako.
4. Dokumentuak paperean badituzu, pasaportea eta beste bi dokumentuak bereizita eskaneatu behar dira PDF formatuan.



Getxoko migrazioen
harrera eta arretarako
Bulegoa
Oficina de acogida
y atención a las migraciones
de Getxo



5. Ordenagailu batean instalatutako ziurtagiri digitalarekin, Justizia Ministerioaren orrira sartzen da Googlen “Nacionalidad por residencia” idatziz.
6. Ziurtagiri digitalarekin eskatzeko aukera hautatu eta dagokion ziurtagiria aukeratu behar da.
7. Bertan honako hautabide hau erabili behar da: Interesdunak kudeatuta eta onartu.
8. Hortik aurrera inprimaki sinple bat agertuko da, datu pertsonalak eta helbidekoak sartzeko eta eskaera sortuko da.
9. Seme-alabak gehitzeko une horretara arte gaituta dagoen aukeraren bitartez eskaera moldatu beharko da.
10. Bigarren fitxa eskaneatutako dokumentuak igotzeko da.
11. Hirugarren fitxa tasak eransteko da (103,02€). Horiek deskargatu ahal dira eta bankuko leihatilan ordaindu, ondoren eskaneatu eta Administrazioarentzako kopia igotzeko.
12. laugarren fitxa CCSE azterketa gaindituta dagoen egiaztatze da, Institutuak gure gaitasuna egiaztatu ezin badu gure GAI egiaztatzea edo gure ikasketa egiaztatzea (DBH, BATXILERGOA, etab.) igotzeko izango da fitxa hau, horretarako egiaztapen automatikoaren aukera desaktibatuz dokumentua eransteko aukera ahalbidetuz.
13. Azken fitxa LABURPENA eta BIDALKETA da, guztia birpasatzeko, sinatzeko eta eskaera bidaltzeko. Ondoren eskaeraren egiaztatze ofiziala deskargatu ahal da.
14. Eskaera bidali ondoren [Como va lo mío](https://sede.mjusticia.gob.es/eConsultas/inicioNacionalidad?idtramite=1215326299080&lang=es_es&idpagina=1215197884559) webgunearen bidez izan ahalko dugu gure prozesuaren berri. Galdetegi txiki bat betez beste dokumenturen bat erantsi behar duzun, beste eskakizunik gabe aurrera doan edo nazionalitatea emango dizuten jakin ahalko duzu.
https://sede.mjusticia.gob.es/eConsultas/inicioNacionalidad?idtramite=1215326299080&lang=es_es&idpagina=1215197884559

**Edozein zalantza argitzeko galdetu Getxoko Migrazioen
harrera eta Arretarako Bulegoan**



Plaza Chávarri-Zuazo s/n
48930 Getxo



747 424 287



oficinaacogida@getxo.eus



944 660 152